

Donostian, 2019ko abenduaren 13an

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, ULIAKO LEGEZ KANPOKO ISURKETAK DIRELA ETA

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui naizen honek, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten duT, Gune PublikoeN Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Ekimen ugari aurkeztu ditugu legegintzaldia hasi zenetik, Ulia mendian gertatzen diren arazoei buruz, Donostiako hiri inguruko parke bat ez ezik, Donostiako arnasmene berdeetako bat ere baita.

Gogoan izan behar dugu ekimen ugari aurkeztu direla esparru horren inguruan, eta alde horretan ingurune naturalaren aurkako erasoek dakartzaten mehatxuekiko kezka kontrolatu egin behar dela, haiek saihesteko.

Ondoko zelai batean suhiltzaileek erabiltzeko pista bat egokitzeko hondakinak botatzea; baimendu gabeko ibilgailu motordunak sartzea, eta Ulia mendiaren Plan Berezia tramitatzea —urte asko baitaramatza hori gauzatzeko zain—, eta, gainera, salaketen arabera, ehiztariak berriro hara inguratzea, bai eta urmael artifizialean duela zenbait urte izandako isurketak ere (horreN helburua zenbait espezie berreskuratzea bultzatzea baita, adibidez, uhandre palmatu eta txantxiku arrunta).

Jakina denez, hezeguneak degradatzeak eta desagertzeak arriskuan jartzen du espezie horiek bizirik irautea, ornodun mehatxatuenak direla jotzeraino. Beraz, Mendiolako urmaelaren barruan etengabe telebistak eta bestelako gauzak botatzen dituztenez gero, espezie horiek berreskuratzea arriskuan do.

Gertaerak behin eta berriz errepikatu direnez, eta kontuan izanik zein ingurutan ari den gertatzen, Ingurumen Sailak kartel batzuk jarri zituen (ez oso egonkorrak) hondakinak botatzea debekatzeko. Hala ere, arau hausleak edo hausleek, botatzen jarraitzeaz gain, kartel horiek kendu dituzte. Azken hilabetean, bi isuri edo botatze egin dituzte. Funtsezkoa iruditzen zaigu kontrol eta zehapen neurriak ezartzea ingurune natural horretara hondakin botatze larri horiek egitera iristen diren arau hausleentzat.

Era berean, Uliako flora mehatxatu egin dute duela gutxi, espezie babestuak (haritza, esaterako) ehiza lekuak eraikitzeke erabili dituztelako. Azpimarratu behar da haritza hazkunde moteleko espezie bat dela eta, beraz, babes berezia behar duela, kasu honetan eragindako kaltea epe laburrean konpontzen zaila baita.

Legez kanpoko isurketak edo hondakin botatzea kontrolatzeko eta zigortzeko ekintzak koordinatu eta artikulatu behar direnez, honako hau aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio zaintza sistema egonkorrek jar ditzala Mendiolako urmaelaren inguruan, putzu horren barrura ezer ez botatzeko, eta, beharrezkoa bada, kontrolatu eta zigorrak ezar ditzala.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Ulia inguruan udala ordenantzak kontrolatzeaz arduratzen diren udaltzainen kontrolak areagotzeko, inguruneari kalteak egitea eragozteko.
3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio 2020. urtean Ulian ingurumenaren babesteari buruzko kontzientziazio kanpaina bat egin dezala.

Haizea Garay Gallastegui,

Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzia.